

kirola

gasteiz cup
emakume futbol eskola

QEU

2005eko uztaila

151


gaia

emakumeen presentzia
musika munduan handituz
doa euskal herrian

zinea

unax mendia argazki
zuzendari gasteiztarraren
ibilbidea

aimar
olaizola
2005eko
buruz
buruko
txapelduna



CEGASA EVOLUTION

Energiaren indar bizia


BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK



LR03/AAA



LR14/C



LR6/AA



LR20/D



Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute, aipatu ekipo horiek eskatzen duten korrante intentsitate altuko beharrari erantzuna emango dion potentzia handiagoko energia.

Erronka berri honi Cegasa-k emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio handiko pila alkalinoen belaunaldi berri bat. Azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.



CEGASA
INTERNATIONAL

SUMARIOA151

gasteizko udala, ebpn eta komunikazio kanpaina

ez da ondo hasi ez gasteizko udalak bideratu euskara biziber-ritzeko plan nagusia, ekaina-
ren erdialdean planaren baitan
abian jarritako komunikazio
kanpainaren planteamendua ze-
haro baztertzailea izan baita
euskaraz hutsez argitaratzen
duen berria eta % 20ko euskara
kopurua duen gara egunkarie-
kin, euskaltzaleon elkargunetik
bere egunean salatu bezala. ai-
tzakia, "zabalkunde gehien
duten egunkarietan" publizita-
tea egitea dela irizpidea...
baina ez hori bakarrik... eta
geu aldizkaria? bakarra gastei-
zen, araban... gu ez gaituzte
baztertu, ez. gutaz ahaztu
dira!... horrela eraman al daite-
ke ganoraz euskara biziberri-
tzeko planik? guk, bertako eus-
kaldunok, euskaltzaleok, geu-k,
ez dakusagu horrela bederen,
eta hemendik udalaren plantea-
menduarekiko gure desadosta-
suna adierazi nahi dugu.

geu aldizkariko batzordea



8



15



24



34

zeregin	4
uztaileko agenda	
iritzia	7
XXIX. gasteizko jazzaldia	
geupertsonaia	8
aimar olaizola	
kaletik / idazleenzutabea	12
bizikletaz hiritik / rikardo arregi	
euskaltasunean	13
josu saenz, 'seju'	
geugaia	15
euskal musikan nesken doinuak ozen	
batbitan	18
geu aldizkariaren 150. aleko jaia iruditan	
artetxokoa	20
unax mendia, argazki zuzendaria	
proposamenak / literatura	22
zinea+cd+liburua / txabi arnal	
lauhitzetan	23
tortura: unai romanoren kasua / beste	
batbitan	24
gasteiz cup emakume futbol eskola	
bidaia / errezeta	26
jon arretxe / pudin diplomatikoa	
arababixotzian / historiazutabea	27
alfredo ibarra / erlantz urtasun	
geu elkarte & geu aldizkaria	28
www.geugasteiz.com	
orribatean	29
sahara & euskal herria. elkartasun bidaia	
historiafteuskara	31
kike fdz de pinedo	
umorea	32
iñigo sarasola	
iritzia	33
horrela ikusi gaituzte prentsan	
orribatean	34
alaves & baskonia	

Laguntzaileak:



1

GASTEIZKO JOLAS JAIALDIA
hiri gunean
(goizez / arratsalde / gauez)

2

GASTEIZKO JOLAS JAIALDIA
hiri gunean
(goizez / arratsalde / gauez)



3

GASTEIZKO JOLAS JAIALDIA
hiri gunean
(goizez / arratsalde / gauez)



7

KONTZERTUAK

> gari.
iruñeko media luna plazan

> latin jazz: laminillas taldea.
jardin de falerina.
montehermoso kulturunean.
20:00etan

8

KONTZERTUA

> carlinhos brown + bebo valdes + madreus + jose merce.
pirineos sur jaialdia. sallent de gállego

9

JARDUNALDIK

> 'japonia zeramikagunea'.
artium-en. antolatzailea: e.k.g.
(euskal keramikagile garaikide-
ak) elkartea. uztailak 9-10

KONTZERTUA

> ortophonk
oionen (vital musika arabatik)

10

GASTEIZKO JAZZALDIA

(10etik 16ra)
> haurrentzako kontzertua.
18:30ean. mendizorrotzan

TXOTXONGILOAK

> zirko iluna. hortzuga.
plaza berrian. 19:00etan (9an
aranbizkarran)

11

GASTEIZKO JAZZALDIA

> gau elektronikoa.
20:30ean. mendizorrotzan

12

GASTEIZKO JAZZALDIA

> charlie parker legacy + chick corea.
21:30ean. mendizorrotzan
+ mintegia (jesus guridi musika kontserbatorioan / 12tik 16ra)
+ principal antzokia (12tik 16ra / 18:30ean)
+ gauerdiko keler jazz
(12tik 16ra / nh canceller ayala hotelean)
+ kale jazz
(12tik 16ra > new orleans potholes brass band)

13

GASTEIZKO JAZZALDIA

> blue note gaua.
21:30ean. mendizorrotzan

14

GASTEIZKO JAZZALDIA

> gonzalo rubalcaba, ... / steps
ahead.
21:30ean. mendizorrotzan

15

GASTEIZKO JAZZALDIA

> verve gaua.
21:30ean. mendizorrotzan

16

GASTEIZKO JAZZALDIA

> taj mahal trio; the robert cray band; koko taylor&her blues machine. 21:30ean. mendizorrotzan
KONTZERTUA > FLITTER. adurtzan
KONTZERTUA > bebe. bilbon

LEHIAKETA > euskal herriko II. graffiti lehiaketaren finala getxon.
egun osoko jaialdia. graffiti finalistak hormetan, tailerak, erakustaldiak eta kontzertuak. www.topagunea.org

18

KONTZERTUA

> ego (euskal herriko gazte
orkestra).
principal antzokian. 20:30ean



21

KONTZERTUA

> banate uanba. musika zelta &
tradizionala.
jardin de falerina. montehermoso kulturunean. 20:00etan

22

VITAL DANTZA ARABATIK

> jose uruñuela dantza eskola.
maeztun

VITAL MUSIKA ARABATIK

> ganbara-orkestra.
adanan

23

DONOSTIAKO JAZZALDIA

> roberta flack + keith jarrett
+ joe cocker + van morrison
+ santiago auseron

24

TXOTXONGILOAK

> txaribari. panta rhei (euskaraz).
arriaga parkea. 19:00etan

25

TXOTXONGILOAK

> txaribari. panta rhei (euskaraz).
plaza berrian. 19:00etan

27

KALEKO IKUSKIZUNA

> III. habanera kantaldia.
plaza berrian

28

KONTZERTUA

> ken zazpi.
barakaldoko herriko plazan

29

DANTZA

> 'izena duen guztia omen da'.
aukera dantza konpainia.
amurrio antzokian. 21:00etan

KALEKO IKUSKIZUNA

> otehitari biraka.
pz berrian. 22:30ean

30

KONTZERTUA

> benito lertxundi.
bakioko probatokin

LEHIAKETA >

sancho el sabio fundazioa VIII.
unibertsitate mailako ikerketa
lehiaketa. uztailak 29 (epea).
www.fsancho-sabio.es

31

KONTZERTUA

> skalarik.
goegin. bendolarra parkean.
23:30ean

ekg. euskal keramikagile garaikideak. 'japonia zeramikagunea' jardunaldiak

uztailaren 9 eta 10ean artium-en hitzaldi programa garatuko du ekg elkarteak. 9an, 11:00etan inauguratu, eta hortik aurrera japoniar zeramikan murgiltzeko parada izango da, honako egitarauari helduz: 'anagrama labea', m^a jesus sarmientoren eskutik (azul galeriako zuzendaria); 13:00etan lunch japoniarra; 17:00etan, carmen ballester toledoko zeramikagile eta irakaslea 'mingei mugimendua' ren inguruan mintzatuko da; kordobatik datorren hisae yanase zeramikagile eta irakaslea japoniako zeramika garaikideko aita dugun kazuo yagiz jardungo du. hurrengo egunean, 10ean, 11:00etan pepa jordana madrilo zeramikagileak shigazakiko 'ceramic park' ez hitz egingo du; ondoren, 12:30ean ehu-ko leioako irakasle eta zeramikagile angel garrazak 'un ceramista vasco en japon' hitzaldia emango du; 13:15ean debate tarte hasiko da, eta 15:00etan bazkaria eta jardunaldien amaiera. (informazioa: 945 26 38 37 / koromartinez@euskalnet.net)

zigoitiko gizarte eta kultur etxea

uztailan, zigoitiko kultura hilabetea > dantza, abesbatzak, musika instrumentala, gazteentzako antzerkia, haur ekitaldiak, kontzertuak...

amurrioko antzokia

maiatzan ireki zituen bere ateak amurrioko antzokia. uztailan eta abuztuan honako proposamenez goza gaitzeko:

> uztailaren 15ean, 21:00etan, antzerkia, ados teatro-ren eskutik: 'las mujeres de verdad tienen curvas'. sarrera: 10 euro. obraren inguruko datuak: kritika eta ikusleen arrakasta izugarria; antzoki guztiak beteta; 150.000 ikusle baino gehiago, donostiako antzerki azokan aurkeztu zenetik. laburpena: hegoamerikako 5 emakume lodik jostundegi klandestino batean egiten dute lan. senar eta amorantez hitz egingo dute. esfortzua, duintasuna eta umore osasuntsua dute oinarri.

> uztailaren 29an, 21:00etan, dantza ikuskizuna, aukeran konpainiaren eskutik: 'izena duen guztia omen da'. sarrera: 10 euro. datuak: zuzendaria > edu muruamendiarrak; 10 dantzari eta 5 musikari; euskal dantza eta musika tradizionalen oinarritu ikuskizun zoragarria. aukeran dantza konpainiak duela gutxi carlos saura zine zuzendariaren 'iberia' film musikalean parte hartu du.

joaquin lucarini, bere jaiotzaren mendeurrenean (1905-2005). erakusketa

arabako arte ederren museoa. irailaren 18a bitartera. fontetxan jaiotako jatorri italiarreko eskultore arabarra genuen. orora 30 artelan ikusgai daude: erliebeak, marrazkiak eta eskulturak. joera eta material anitzetako eskultorea zen, abango-ardietako jasotzaile aparta.



juan zelaia V. saiakera saria

pamiela etxeak antolatua, kulturaren aldeko euskal fundazioaren babesaz, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz. Lanak aurkezteko epea abuztuaren 31n amaituko da. saria

6.000 eurokoa

izango da.

informazio gehiago:

pamiela etxea,

948326535 /

amiela@pamiela.org

JUAN ZELAIA
V. SAIKERA SARIA
URRUTIA, 2005



jose antonio loidi ikerketa beka 2005

ikerketa esparruak: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika. bekaren iraupena: 12 hilabete. diruzenbatekoa: 9.000 euro. norbanakoek edo taldeek eska dezakete. goi mailako titulazioa eta ega behar dira. aurkezteko epea: irailaren 5etik 23ra. www.irun.org / euskara@irun.org / 943649250 (irungo udala).

becerro de bengoa XVII. saiakera lehiaketa / ignacio aldekoa saria XXXIV. ipuin lehiaketa / ernestina de champourcin XVI. poesia lehiaketa

lanak aurkezteko epea irailaren 7an bukatuko da. arabako foru aldundiaren kultura, gazteria eta kirol sailaren entregatu edo hara bidali -probintzia plaza 5-3.a-01001-gasteiz-, kanpoaldean lehiaketaren izena jarrita. jakina denez, bi hizkuntza modalitate ezartzen dira, euskara eta gaztelania; lan bakoitza horietako modalitate bakar batera aurkez daiteke.

gasteizko 29. jazzaldiaren egitaraua

www.jazzvitoria.com / s. prudentzio 8

MENDIZORROTZA

uztailak 10, igandea. 18:30ean

• haurrentzako kontzertua: juilliard all stars

umeak: doan / helduak: 5 €

uztailak 11, astelehena. 20:30ean

• gau elektronikoa: ortophonk / de phazz / us3

15 €

uztailak 12, asteartea. 21:30ean

• charlie parker legacy

wes anderson, vincent herring, jesse davis, ronnie mathews, ray drummond & jimmy cobbekin. gonbidatu berezia: francesco cafiso

• chick corea & touchstone

chick corea, pianoa; carles benavent, baxua; jorge pardo, saxoa eta flauta; rubem dantas, perkusioa; tom brechtlein, bateria (kontzertu bakarra estatu espainarrean)

25 €

uztailak 13, asteazkena. 21:30ean

• blue note gaua

- joe lovano quartet, hank jones, george mraz & lewis nashekin
- cassandra wilson

25 €

uztailak 14, osteguna. 21:30ean

• charlie haden & gonzalo rubalcaba, david sanchez, miguel zenon, michael rodriguez, oriente lopez & ignacio berroarekin

• steps ahead

michael brecker, saxo tenorra; mike mainieri, bibrafonoa; mike stern, gitara; richard bona, baxua; steve smith, bateria

25 €

uztailak 15, ostirala. 21:30ean

• verve gaua

- madeleine peyroux

(kontzertu bakarra estatu espainarrean)

- jamie cullum

25 €

uztailak 16, larunbata. 21:30ean

• taj mahal trio

• the robert cray band

• koko taylor & her blues machine (kontzertu bakarra europar)

30 €

> abonua (12-16): 87 €

> zenbatutako abonua berezia (12-16): 130 €

PRINCIPAL ANTZOKIA

18:30ean

10 €

uztailak 12, asteartea > mathew bourne

uztailak 13, asteazkena > moutin reunion quartet

uztailak 14, osteguna > akosh s unit

uztailak 15, ostirala > hiromi

uztailak 16, larunbata > bobby previtte / charlie hunter / greg osby

> abonua: 38 €

GAUERDIKO KALER JAZZA

NH CANCELLER AYALA HOTELA. GAUERDI INGURUAN

uztailak 12-16 > benny green trio

uztailak 12, 13, 14 > john pizzarelli quartet

uztailak 15, 16 > kurt rosenwinkel trio

KALE JAZZA

uztailak 12-16

new orleans potholes brass band

VI. JAZZ MINTEGIA

uztailak 12-16 / jesus guridi musika kontserbatorioan

new yorkeko juilliard school

GEU

laguntzailea:

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

Gizarte-Ekintza

hala bedi
I R R A T I A

GEU
aldizkariko 150. aleko jaiaren laguntzailea

hala bedi



radiovitoria

gauero - 21.00 etan. 'GAUALDI'

GEU
aldizkariko 150. aleko jaiaren laguntzailea

EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confeciones
Pinedo
JANTZIAK
San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Bacalao Giraldo



- Egunko makailu gesaldia
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

ITYRRIETA



Sagardotegia

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHA
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA
MERIENDAK

Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

**Euskadik
behar zaitu**



**EAJ
PNV**

IRYSTA **TABERNA**
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztekoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia



Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



[gorka glz de zarate]

Berriro prest Jazzaldirako

Prest al zaudete, hirikide agurgarriak, datorkiguna jasateko? Ziur? Datorkiguna Jazzaldia da; Gasteizek urtero topikoz ezin beteago garatzen duen aste promozional eta turistikoaren islada, hain zuzen ere. Hilaren 10etik hasita eta 16 arte bisita egingo digute, besteak beste, piano jotzaile ederrenek, historian zehar ezagutu ahal izan diren abeslari liluragarrienek, inongo kristaurik ezagutzerik izan ez dituen baxujotzaile trebeenek,...

Horiekin batera egunkariratuko gara berebiziko artista horien dohainak urtero zapuzten saiatzen garen kritiko maltzur orojakinok, Jazzaldiko antolatzaileen eta hauek Jazzaldiaren aldareetara lotsarik gabe igo dituzten idazle itxuroso eta progreen itxurazko arrangura zirikatzen dugunok.

Baina, lasai, esaten den bezala, odola ez da Mendizorrotzako aulkiak zikintzera iritsiko. Eta iritsiko balitz, ikusleriak erosi berri duen bokadillo estilosoari bota ohi zaion *ketchupa* baino ez dela pentsatzen igaroko ditu saio bakoitzak mantso irauten dituen minutuak.

Eta topikoz topiko, artistak jorratzen saiatuko dira aurten prestatu diguten egitarau interesgarri hori. Izan ere, ez al zaigu, bada, aurpegiratu gurea dela Europako jazzaldirik hoberena, ezezko usainaz idatzitako hainbat artikuluren aurrean? Ez hoberena, baina ezta txarrena ere, aurten Europan jo nahi izan duten artista estatubatuarrek osatzen dutena, beraiek eskatutako sosak ordaintzen zaizkiela jabetuta, jakina. Horretan, diru kontuetan alegia, azkarrak dira oso gure Jazzaldi honetako antolatzaileak. Horrenbesteko aitormena behar ez duen ahaleginaren ondorioz [beren lana edota nahia da azken finean hori], urtero batzea lortzen duten dirutzarekin publiko desberdinen gustuak asetzeko gauza den festibala osatzea erdiesaten dute. Batez ere, publiko ezjakinarena.

Hala ere, bada aurtengo egitarauan azpimarratzekorik merezi duen kontzerturen bat edo beste. Adibidez, guri atsegin zaigun baino gutxiago aritzen diren talde gasteiztar baten presentzia, Ortophonk. Aipatzea merezi du beste aldetik, Hiromi piano jotzaile japoniarren buelta. Niretzat, iazko Jazzaldian izan genuen artista interesgarriena. Zorionez, Jazzaldi honetan ez ditu bere notak alferrik galduko Florida parkearen aitzinean dagoen hotelaren soto higuinagari eta zatatsuetan eta leku duin bat eskaini zaio Jazzaldiak duen taula ederrenean, Principal antzokiarenean, alegia.

Baina, ez kezkatu. Mendizorrotzan ari tuko direnen artean ere izango dira aipamena merezi duten beste batzuk. Izan ere, aukera izango dugu zuzenean Hank Jones maisuak Joe Lovanorekin batera grabatu berriko 'I'm All for you' eta 'Joyous encounter' diskoen edukiaz gozatzeko. Charlie Haden baxujotzailearen eta Gonzalo Rubalcaba piano jotzailearen taldeak autore hispano-amerikarren [batez ere, Jose Marroquin autore mexikarraren] abestietan oinarria duen jazz berri eta interesgarri baten ikuspuntutik joko digu. Cassandra Wilson, Madelein Peyroux abeslariaren eta Jamie Cullum, abeslari baino pedanteago geratzen den croonerraren saioek interesa dute, zalantzarik gabe. Baita Jazzaldiari amaiera emango dion Bluesari eskainitako eguna ere.

Alderantziz, latza egiten zait ezer interesgarriarik topatzea Chick Coreak asmatutako 'Touchstone' disko ospetsu zein zaharkituaren berjotzean. Are latzago ezer aipagarriarik esatea Steps Ahead talde festibaleroaren inguruan, horiekin batera ariko den Mike Stern gitarra jotzailea edozein egoeratan interesgarria dela ez bada.

Edonola ere, bejondeizuela.

Datorkiguna Jazzaldia da; Gasteizek urtero topikoz ezin beteago garatzen duen aste promozional eta turistikoaren islada, hain zuzen ere.

aimar olaizola

Ekainaren 5ean Irujoren kontra jokaturiko buruz buruko finalean bere ametsa lortuta ikusi zuen Olaizola II.ak (22-18). "Txapela lortzea da pilotari batentzat inportanteena". Goizuetakoak, bederatzi urterekin pilotan hasi eta dagoeneko ondo egindako lanaren fruituak jaso ditu. Zorionak!

"Anaiak zerikusiri handia izan zuen lasaitzeko orduan"

olaizola II

[josune v. de mendizabal]

Buruz buruko txapelketaren eguna heldu zen azkenean ekainaren 5ean. Ez zen ondo hasi partida zuretzat, halere buelta eman zenion partidari. Zer-nolako balorazioa egiten duzu?

Partidak bi zati izan zituela esan daiteke, lehenean urduri nengoen, tentsioarengatik edo ez dakit zergatik, eta bigarren partean aldiz, hobeki jokatu nuen, libratu egin nintzen eta lasaiago jokatu nuen, maila eman nuen.

Tentsioa aipatu duzu, hori al da partida hasi baino lehen sentimendu nagusia. Zer sentitu zenuen bezperan?

Normalean nahiko lasai pasatzen ditut aurreko egunak, baina buruz burukoa berezia den heinean, bezperan lo ondo egin banuen ere, agian egunean bertan kontzientzia pixka bat duzunean

nabaritzen duzu tentsioa eta zerbait diferentea, eta horrek nahi eta nahi ez presioa egiten du.

Frontoian dagoen giroak ere lasaitzeko edo urduritzeko orduan zerikusirik al dauka? Zerbait entzuten al duzue jokatzeko zabilatzaten bitartean?

Bai, buila handia baina hori ere bada polita, hau da, jokatzeko frontoia topera egonda; tentsioa eta hainbeste jende egotea bata zein bestea animatzen polita da, horrek zerbait diferentea sentiarazten dizu.

Anaia beti ondoan, beti lagun, bere hitzek ere eragina izan zuten partidari, jokaera aldatzea eragin baitzizuten. Zer esan zizun?

Zer esan zidan ez dakit, baina partida hauetan inportantea izaten da jokatzeko duena lasaitzen jakitea, eta hori da

anaiak egin zuen lana. Lehen esan bezala, hasieran pixka bat urduri nengoen eta pixkanaka lasaitzen joan nintzen. Horretan zerikusi handia izan zuen anaiak, errieta eta guzti egin zidan. Horri esker lasaitu eta sartu nintzen partidari.

Partidak bi zati izan zituela aipatu duzu. Garaipen zaila eskuratzen denean saria gehiago gozatzeko al da?

Ez dakit... buruz buruko txapelketa irabaztea pilotari batentzat dagoen inportanteena da. Irujoren kontra 15-6 galtzen joan eta emaitzari buelta emateak meritua badauka, baina horrela izan ez balitz ere txapela irabaztea guretzat garrantzitsua den gauza dela esango nuke.

Txapela lagunei eskaini zenien, ezta?

Bai, bospasei laguni, gehien ibiltzen garenei. Asko dira ni ikustera joaten direnak eta hauek ere asko sufritzen dute nirekin batera, eta uste dut txapela zor niela.

Lagunak eta familia al dira horrelako presioko partidetan lasaigarri sendoa?

Zerikusi handia izaten du familiak. Izan ere, asko sufritzen du gurekin leku batetik bestera ibiltzen, eta hortaz, irabazitako txapela batzuk beraiei eskaini dizkiet. Nire ustez bai familia eta bai lagunak pilotari batentzat oso garrantzitsuak dira, baita edozein kirolarientzat ere.

Nola ospatu zenuen garaipena?


Partiduaren ondoren sagardotegi batera joan ginen Astigarragara, han herriko

lagunak, familia, adiskideak eta abar... izan ginen. 150 bat lagun edo bilduko ginen, gero afaldu eta nahiko gau luzea izan zen hura... (barre egiten du).

Sagardotegian jan zenuen aurreko egunetan jan ezin izan zenuena, ezta? Zer jan ohi duzu partidaren aurretik?

Partiduaren aurretik nahiko arin jaten dugu, eta horrelako txapelketa egunean buruan hori daukazu eta janariari, nola ez, begiratzen diozu. Baina behin txapelketa bukatu eta irabazi eta gero janariak eta denetaz disfrutatzen dugu. **Urtebetez izango da txapelaren pisua zurekin, hemendik aurrerako jokoa baldintzatuko al zaitu?>>**





fitxa teknikoa

Aimar Olaizola Apezetxea

Kirol izena:

Olaizola II

Jaioterria:

Goizueta (Nafarroa)

Jaiotze data:

1979/11/13

Adina:

25 urte

Postua:

Aurrelaria

Altuera:

1,83 m

Pisua:

87 kl

Debuta:

1998/04/12

Debutaren tokia:

Jaian Jai (Lekunberri)

ibilbide profesionala

Txapeldun buruz burukoan-2005

Txapeldun 4 1/2an-2002, 2004

Txapeldunordea buruz burukoan-2003

Txapeldunordea bikotetan-2003

Txapeldun buruz burukoan-1999 (bigarren mailan)

partidak 2004-05

Jokaturikoak:

30

Irabazitakoak:

23 (% 77)

Galdutakoak:

7 (% 23)

>>Ez dakit, pilotari batentzat hau da gauzarik inportanteena eta azken urteetan hor goian izan naiz (lau eta erdiko finalak jokatzeko eta irabaziz). Jokatzeko moduan, hortaz, ez da aldaketarik egongo, bakarrik horrelako txapelketa izateak konfiantza ematen duela.

lrujorekin egoteko aukerarik izan al zenuen partida eta gero?


Bai, aldagela berdinetan egon ohi gara partida eta gero pilotariok, eta ohituta gaude irabazi duenari zorionak ematen eta galtzailea aldiz, nahiko triste ikusten.

Zer-nolako harremana duzu berarekin?

Pilotari guztion artean ezagunak gara eta oso giro polita sortzen da, lagunak gara; eta esan bezala, irabazten duena kontent eta galtzen duena oster, triste.

Zenbat denbora ematen duzu eskuetan takoak jartzen?

Partidu egunetan ia bi ordu eta entrenamenduetarako, berriz, tako zaharrak erabiltzen baldin baditugu ia ordubate; berriak jarritz gero, berdin, bi ordu.



di-da

Eskuma edo ezkerra

> ezkerra.

Kolore bat

> beltza.

Amets bat

> dagoeneko bete dut, buruz buruko irabaztea.

Pilotan erreferenterik

> retegi.

Janari tentagarria

> pastelak eta horrelako gauza goxoak.

Parranda egiteko leku bat

> goizuetako jaiak.

Oporretara joateko lekua

> edozein toki da ona oporretan egoteko.

Pilotak eman dizun onena

> txapel hau.

Txarrena

> eman ez dakit, baina pasa ditudan memento txarrenak lesioak izan ditudanekoak izan dira.





Badarama ba denbora!

Pilotak duen txarrena da hori (barre egiten du).

Eta kentzeko?

Hamar bat minututan egiten duzu, ez da arazoa.

Atsedenerako egunak ere hartu dituzu finala eta gero. Zertarako eta non ematen duzu denbora hori?

Normalean deskonektatzeko izaten da, hau baita inportanteena. Partiduaren osteko egunetan prentsa dator eta onena deskonektatzea da; ni orain (ekainean) lagun batzuekin ibili naiz kanpoan eta orain banoa berriro (ekainaren erdialdean).

Sakrifizioaren bat egin behar izaten duzu pilotan aritzeko?

Ez, ohituta gaude... Gauza batzuk, beste batzuek posible dituztenak, ezin dira egin eta alderantziz, guk beste batzuek ezin egin dezaketena egin dezakegu. Baina gazteek egiten dutena, hau da, parranda eta hori, nik libre daukadanean aprobetxatzen dut, baina ezin denean ezin da eta listo•



KIDE

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

Bizikletaz bai

Udara heldu da. Kaleak oinpekoen oihartzunez betetzen dira sasoi honetan. Gasteiztarrek bizikleta gustuko dute eta hori nabari da karriketan zehar. Aukera ona da, garraiabide ekologiko eta osasuntsua alegia. Oraingoan hautu honen zergatiaz galdetzeko atera gara kalera.

[maite lekue eta saioa fdz arangiz]

- Zertarako erabili ohi duzu bizikleta? Zergatik?
- Aproposa al da Gasteiz bizikletaz ibiltzeko?
- Gomendio bat bizikleta erabiltzen ez dutenei...



Iñigo, zerbitzaria

- Aisialdiaz gozatzeko, udan batez ere, pantanora joateko adibidez. Gustukoa dut eta gainera kotxerik ez dudanez oso ondo datorkit.
- Ez, eta gero eta gutxiago. Kotxe asko daude eta errespetu gutxi diete bizikletaz doazenei.
- Aparkatzeko erraza da eta azkarrago heltzen zara edonora.



Rafael Gonzalez, ostalaria

- Gasteiz hiriaz gozatzeko oso atsegina baita. Bizikleta hartzea gustuko dut, kaleetan barrena galtzeko.
- Baietz uste dut nahiko laua delako eta hortaz, proposa bizikletaz ibiltzeko.
- Jende guztia animatuko nuke bizikletaz ibiltzera, jarraitu niri! Merkea izateaz gain, sasoi mantentzeko baliagarria da.



Ainhoa Negro eta Leslie Salazar, ikasleak

- Garraiabide bezala erabili ohi dugu, klasera joateko, buelta bat emateko... Gazteak garenez eta autorik ez dugunez, bizikleta erabiltzen dugu autobusa hartu beharrean.
- Bai, batetik auto gidariak bizikletak errespetatzen dituztela uste dugu eta bestetik, bidegorria egokia dela deritzogu.
- Kotxe gidariei esango genieke, trafiko handia dagoenean azkarragoa dela bizikleta eta bide batez, kirola egiteko proposa dela.

Karpak



[rikardo arregi
diaz de heredia]

Oraindik oso ondo ulertzen ez dudan ohitura dela eta, Gasteizko plazetan, batez ere erdiguneko plaza betikoetan, loratzen zaigu noizbehinka (gero eta maizago ikusten dudanez) lore edo perretxiko mota berri bat: zuri, handi, plastikozko eta askotan zaratzatsua. Karpa deitzen dugu. Plazak plastikozko karpa zuriz betetzen zaizkigu hiritarroi. Baten batek pentsa dezake Gasteizen ez dagoela areto nahikorik erakusketa eta horrelakoak egiteko eta behar direnenetarako tramankulu behin-behineko horiek agoantatzea ezinbestekoa dela. Gezurra dirudi (eta da). Hirian zehar leku asko dago, batzuk oso dotoreak gainera, gauza horiek guztiak egin ahal izateko. Auskalo zergatik buru argiren bati otu zitzaion karpn ugaltze hau, "herrikoia" iruditut zitzaien agian, itsusia demokratizatzea bururatu zitzaion beharbada. Karpak handiago edo txikiago izan daitezke, kasurik onenean plazaren zati bat inbaditzen dute bakarrik baina kasurik larrienetan plaza osoa hartzen dute eta, ondorioz, hiritarrek ezin dute betiko bidea hartu haien zereginetan, beste bide batzuk saiatu behar dituzte, atzerabueltak, itzulinguruak, mota guztietako estrategiak garatu behar dituzte oinezkoek plastiko zuri itsusi horiek gairiditzeko. Karpa askok musika (zarata esan beharko nuke) du. Karpa ez da konformatzen oztopo izatearekin edo begiak molestatzearekin, karpak belarriak ere mindu egiten ditu. Hiritarrak behartuta daude karpak botatzen duen musika entzuterat, gustatu ala ez. Plaza Berriko terraza batean eseri eta egunkaria lasai irakurtzea gero eta zailagoa da•

Josu Saenz, 'seju'

"Uste dut gero eta euskara gehiago entzuten dela Gasteizko kaleetan"

Heziketa fisikoko irakaslea da 30 urteko gazte hau. Irribarrea beti lagun, alaia eta baikorra; aldarte oneko pertsona. Durangon jaioa, baina unibertsitateko ikasketak egitera Gasteiza etorri, hiria gustatu, bere burua eroso sentitu eta Gasteizen geratzea erabaki zuen, "eta zorionez hemen jarraitzen dut", dio. Euskara hainbat udalategi eta barnetegitan ikasi zuen. Asteazkenean, irakasle dabil Vera Cruz ikastetxean, eta spinning monitor Muby emakumeentzako gimnasioan; asteburuetan, "ufff!, eginbehar guztiak ahaztu eta deskonektatzera".

[estitxu breñas]

Duzun biziorik handiena?

Bihotz-bihotzez barre egin.

Bertuterik?

Pazientzia handikoa naiz.

Akatsik?

Gauza guztiak azken momenturako utzi.

Zer eskatzen diozu bizitzari?

Maite ditudan pertsonak ondoan edukitzea.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Gezurak.

Geu elkartearen eta aldizkariaren berririk?

Aldizkaria gimnasioan jasotzen dugu eta normalean irakurri ohi dut.

Egunkari bat?

Ez naiz egunkarizale, berriak irratian, telebistan edo interneten ikusten ditut.

Telebista saio bat?

'Siete vidas'.

Beldurrik?

Gaixotasunei.

Oporrak non eta zertarako?

Hegoamerikan. Horko miragarritasun naturalez gozatzeko.

Eta nora ez zinateke joango?

Printzipioz ez dut ezer baztertzeko, leku guztiek eduki dezakete xarmaren bat.

Gasteizko gaua, non? zergatik?

San Prudentzio kaletik mugitzen naiz. Dagoen giroa gustatzen zaidalako.

Eta gasteizko eguna?

Gasteizko alde zaharrean.

Liburu bat?

'El señor de los anillos'.

Film bat?

'La vida de Brian'.

Edari bat?

Normalean ur oso hotza. Ospakizunetarako Gin Tonic, je-je.

Janari bat?

Pasta, denetikoa.

Kolore bat?

Beltza, betidanik.

Musika gustukoa?

Denetarik entzuten dut, chill out musika gero eta gehiago gustatzen zait.

Zer da gasteizek duen onena?

Gasteizko berdeguneak.

Eta txarrena?

Oso hiri garestia dela.

Euskaraz bizi al daiteke gasteizen?

Zergatik ez, nik uste dut gero eta euskara gehiago entzuten dela Gasteizko kaleetan.

Amets bat?

Posible al da munduko bazter guztiak ezagutzea?

Amesgaizto bat?

Bai, bat oso arraroa, hegazkin bat nire buru gainean erortzen dela.

Zer eskatzen du herriak?


Lasai bizitzeko giroa, lan egiteko aukerak eta etxebizitzaren prezioaren jaitsiera.

✓ Zaletasunez beteriko mutila dugu, senide eta lagunekin egotea, musika entzutea, kirola egitea, argazkigintza, bideogintza, informatika...

✓ Etorkizuneko planez galdetuta, "pertsonalki oraindik seme-alabarik ez, je-je...", eta profesionalki, emazteak eta biok ireki genuen gimnasioa finkatu eta handitu Gasteizen".

✓ "Ez naiz gauzekin konplikatzeko, egoera guztietatik eta pertsona guztiengandik alde onak ateratzen saiatzen naiz, arazoak ez zaizkit gustatzen... mutil jatorra, je-je!".

[arg.: edorta sanz]



ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ



**XABIER
AIZPEOLEA**

HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna

"EL CLARETÉ"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74



geugasteiz.com

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 ifnoa. 945 25 02 39

Dalvez
argitarazleak

www.dalvez.com
945.245.269 - 652.776.509

GASTEIZ

Eta zuk, nola ikusten duzu?
Egunsenti bat edo une erromantiko bat?

**EGUZKIETAKO
BETAURREKO
GRADUATUAK**

ETA
HONDARTZAKO
TOAILA
OPARI

68 €
tan

ZERBITZU
OPTIKOETAN

1a


MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria plaza
Olagibel, 33
(anbulategi aurrean)
GASTEIZ

NESKEN DOINUAK OZEN

Emakumeen presentzia musika munduan handituz doa Euskal Herrian

Neskak dira. Guztiak musikariak. Euskaldunak. Euskal Herriko musika panoraman pisua hartzen doaz urtez urte emakumeak.



[edurne begiristain]

Betidanik musika gizonezkoen esparrua izan da. Euskal Herriari dagokionez, 80. hamarkadan euskal rock erradikala deitzen zaion horretan talde andana sortu zen, kontzertu mordoa, publiko masiboa... baina emakume gutxi zeuden oraindik. Nesken partehartzea txikia zeñ, baina ez nolanahikoa: Aurora Beltranekek Belladona taldea sortu zuen; Gipuzkoa aldean Humedecidos jaio zen Lou Olangua izeneko emakumea buru zela; Gasteizen Potato sortu zen, eta bertan gitarra jotzen beste emakume bat ageri zen, Elena Lopez; Orain itzultako ahaztezinak Las Vulpes... Garai hartan rockaren mundua ez zen bereziki matxista, ez gizartea baino>>

NESKEN DOI

>> gehiago, behintzat. Talentuak, musikari onak izateak, emakumeekiko tratua normaltzea ekarri zuen, neurri batean.

Hortik aurrera emakumeen presentzia musikan nabaria izan da, eta gaur egun emakume asko buru ageri dira musika talde askotan. Azken hamarkadan emakume dezente agertu zaizkigu taldeetako buru, partaide edota bakarlari moduan. Zerrenda handituz doa urtez urte: Sorkun, Anari, Labrit, Maixa eta Itziar, Alaitz eta Maider, Jauko Barik, Ados, Afrika, Daia, Zea Mays, Kokein... Nork bere estiloa dauka. Nork bere musika egiten du. Guztiak dira emakumeak. Guztiak musikariak.

Musikaren munduan emakumeek duten paperaz arestian aipatu abeslarietako batzuek esandakoak bildu ditugu ondoren. Neska gehiago daude musika egiten, baina gutxi batzuen aburuak bildu ditugu, lagin moduan.



JAUKO BARIK

(Donostia, 2000) Hiru neskek osatzen dute: Itsaso (kitarrak, bibolina, teklatuak eta koroak), Enara (ahotsa eta bajua) eta Haizea (ahotsa eta bateria). Soilik emakumez eratutako talde gutxi daude Euskal Herrian, eta hau horietatik ezagunetarikoa da. Berezitasun nabarmena du talde honek: euren abestiek emakumeen ikuspuntua islatzen dutela, eta hori letretan ikusten da. Nortasun handiko taldea da, emakumeen nortasuna jasotzen duen taldea.



AIORA RENTERIA

(Bilbo, 1976) Zea Mays taldeko abeslaria da. Bere ustetan, emakumea orain ari da musika mundura jauzia ematen eta pixkanaka-pixkanaka gehiago agertzen. "Orain talde dezente daude emakumezko kideekin. Arraroa da rock talde batean egotea, normalean pop eta horrelako estiloetan agertzen baikara. Dena dela, orain hasi dira rockean ere neskak sartzen", adierazi zuen duela urte pare bat elkarriketa batean.

"80. hamarkadan rockaren mundua ez zen bereziki matxista, ez gizartea baino gehiago, behintzat. Talentuak, musikari onak izateak, emakumeekiko tratua normaltzea ekarri zuen, neurri batean"

AFRIKA

(Algorta, 1977) Ekuatore Gineako etorkinen alaba da Afrika Bibang. Barrutik ateratzen zaiona musika da, arima beltzeko musika, nahiz eta berak euskaraz abestu. Urte askotan Etsaiak taldearekin eta beste batzuekin ibili eta gero, 2003an atera zuen bakarkako lehen diskoa.

Afrikak aitortu izan du bere promoziorako hiru elementuk mesede egin diotela: beltza, euskalduna eta emakumea izatea. Baina piztu duen jakinmin hori aprobetxatzen jakin duela aitortzen du. Hiru ezaugarri horiek neurri berean markatu dutela esan du.



NUAK OZEN

SORKUN



(Errenteria-Orereta, 1977) Euskal rockaren "dama" deitzen diote. Musikan bataioa 1995. urtean izan zuen, Kashbad taldearen estreinako diskoarekin. Ondotik eta Kashbadekin hiru disko egin zituela ahantzi gabe, hamaika talderekin kolaboratu du, besteak beste: Negu Gorriak, Fermin Muguruza, Joxe Ripiau, Ekon, Flitter...

2002an atera zuen bakarkako lehen lana: Onna (emakumea, japonieraz). Goitik behera berak pentsatu eta garatutako lana, alboan musikari aparten laguntza izan bazuen ere. Duela zenbait urte aldizkari batek egindako elkarrizketa batean rock munduan jarrera matxistarik antzematen ote zuen galdetuta honakoa erantzun zuen: "Normalean gizonezkoak izaten ditut inguruan, baina tira, ez dut matxismo ikaragarririk sufritu. Ez behintzat dena utzi eta etxera aldegitoko modukorik. Mutilekin ondo moldatzen naiz, baina askotan emakumeen mira izaten dut. Esate baterako, Japoniara heldu nintzenean, beste lau emakume zeuden biran eta izugarri estimatu nuen haien konpainia. Ez da zerbait arrazionala, barrukoa baizik."



DAIA

ZALOA URAIN

(Eibar 19 77) Kokein taldeko aho-tsa da. Zaloaren irudiko emakumeen presentzia euskal musikan "naturaltasunez" hartu beharko litza-tekeen kontua da. Bera Kokein taldeko abeslaria izatea ez dela apropos erabakitako zerbait iritzi dio. "Nik hasieran ez nuen erabaki Jatsu eta Txixes (taldekideak) mutilak izan behar ziren ala ez. Pertsona bi topatu nituen musikarekin neure antzeko pasioa sentitzen zutenak, eta sexuari ez nion jaramorik egin. Zer dela eta aukeratu beharko lukete eurek ni neska izatea edo ez? Musika egiten dugun pertsonak gara, eta ez lau mutil eta neska bat".



emakumeak & punk-a munduan

70. hamarkada mugarria izan zen musikaren munduan emakumeentzat. Izan ere, punka heldu zenean gauzak apurka-apurka aldatzen joan ziren. Ordura arte musikan aritu ziren emakumeak salbuespen hutsak ziren. Baina, hamarkada horren amaieratik aitzina panorama aldatuz joan zen mundu osoan. Punk-aren lelo ezagun batek "zeuk egin ezazu" (zure musika, zure arropa, zure fanzineak egin itzazu...) emakumeengan eragina izan zuen neurri handi batean, eta musikaren bidez euren desioak, nahiak edota amorrak azaldu zezaketela ohartzeko baliagarria izan zen. 1975az geroztik sortutako taldeetatik askok eta askok emakumeren bat izan zuen partaideen artean. Sekula ez ziren etiketa baten inguruan bildu, eta ez zuten emakume izaera aldarrikatu musika egiteko. Emakumeak musikan sartu ziren, besterik gabe, ordura arte gizonei soilik mugatutako esparruan euren lekua hartuz.





geu
aldizkariko
jaia.
05-06-17

[argazkiak: edorta sanz]

Unax Mendia, argazki zuzendaria

"Argiak, itzalak eta koloreak erabiliz"

Gasteiztarra, 35 urte, argazki zuzendaria. Halakoa dugu Unax Mendia, besteak beste, Juanma Bajo Ulloaren azken lanean argazki arloaz arduratu den profesionala. Izan ere, bere ibilbidea ez da makala, zineman murgildu zenetik, espainiar estatu mailako hainbat zuzendari ospetsuk berarengan jarri baitute konfiantza euren obren giroaz eta argazki arloaz arduratzeko.



[saioa fdz de arangiz]

Argazkilaritza ikasi ostean, Gasteizko Irudi eta Teknologia Berrien Zentroan (C.I.N.T) egindako ikasketek hasiera eman zioten Unax eta zinemaren arteko harreman estuari. Ikas-taroek, mintegiek eta lanak, berriz, sendotu. "Hasieran, hainbat filmetan kamera laguntzaile lana egin nuen, baita film labur askotan argazkiak egin ere. Profesional gisa garatzeko funtsezkoa den lan eskarmentua lortu nuen hone-la, garrantzi handiko proiektuei aurre egiteko aukera agertu zitzaidan arte", azaldu du Unaxek, bere hastapenen inguruan hausnarketa egitean. "Lanbide honetan hasia arras zaila da, guztietan bezala. Zuzendari eta ekoizleei fidagarri iruditzea ezinbestekoa da. Horretarako lan eskarmentua behar da, hala ere, hori lortzea ez da beti lan samurra.

Erresistentzia eta iraupen-lasterketa bat da, pasio handia jarri behar da. Gero, barruan sartu ostean, ahalik eta ondoren egin behar duzu. Gaur grabatzen duzu, bihar, aldiz, ez", gaineratu du.

Gauzak horrela, denboraren poderioz kalitatezko lanak egitea lortu du, hala nola, Antonio Hernandezen 'En la ciudad sin límites' eta 'Oculto'; Enrique Urbizuren 'Adivina quién soy'; Eugenio Miraren 'The Birthday'; eta Bajo Ulloaren 'Frágil', besteak beste.

Funtsean, bere zeregina argazki kontzeptuen bidez gidoi bat interpretatzea dela azaldu digu Unaxek; argiak eta itzalak, koloreak eta enkoadraketak erabiliz istorioak garatzea, alegia. Ildo horretan, zuzendariarekin hitz egitea da gidoi bat esku artean duenean egiten duen lehenengo gauza, honek kontatu nahi duena

ulertu nahian eta filmari estetika egokia bilatzeko. Hurrengo urratsa, berriz, erreproduzio lana litzateke. "Bertan, argazki zuzendariak, taldearen laguntza, filmaren grabazioa prestatzen du, lokalizazio naturalak bilatuz, dekoratuak erakiz eta zehaztasun guztiak lotuz", adierazi du gasteiztarrek. "Ondoren kamerarekin eta argiztapen taldearekin aurrekoa praktikan jartzea izango litzateke nire lana", diosku Unaxek.

Zeregin horretan argazki zuzendari batek kontuan hartzen dituen irizpideak anitzak dira. "Pintura, filmak, ilustrazioak edo komikiak, hau da, arte mota guztietan bila dezakezu inspirazioa, baina batez ere, pertsona legez dituzun kontzeptu estetikoetan eta inguratzen zaituen guztian oinarritu behar zara", argitu digu azkenik Unaxek.

gidoiak interpretatzea da nire lana"



Nire lehenengo film luzean Geraldine Chaplinekin egin nuen lan, eta emakume honek 'Doctor Zhivago' filmean parte hartu zuela gogoratzean lilulaturik geratu nintzen!

Nolakoa izan da 'Frágil' filmean egin duzun lana? Zer-nolako giroa eman nahi izan diozue?

'Frágil' erronka zaila izan da; diru gutxiarekin eta ezezagunak diren aktoreekin istorio bat kontatzea, nork bere lana ekoizteā... Hori guztia egiteko ausardia eduki behar da eta kasu honetan, Juanma ausartu da erabat. Ildo horretan, erronka istorioa modu errazeān kontatzea izan da, zehazki, zerbaiten bila dabilen neska baten ikuspuntutik. Maitasun idealizatuaz mintzatu gara filmean, izān ere, alde biko ipuina dugu eta pertsonaien asmoekin batera bidaiatzen duen itxura idiliko hori ematen saiatu ginen.

'En la ciudad sin límites' pelikula arrakastatsua izan zen oso. Zelako oroitzapenak dituzu?

Hau nire lehen film luzea izan zen. Oso berezia, beraz, niretzat. Makillaje eta arropa probak egiten ari nintzela, bat-batean Geraldine Chaplin agertu zela gogoratzen dut. Orduan, emakume horrek 'Doctor Zhivago' filma egin zuela gogoratu nuen... Izugarria benetan! Izan ere, dena eman nuen pelikula horretan. Paris eta Madrilan grabatu

g'enuen, lokalizazio asko egin behar izan genituen eta oso bizia izan zen. Gainera, gidoia sekulakoa zen eta Antonio Hernandezek primeran grabatu zuela uste dut.

Are gehiago, lan honi esker berriro ere egin nuen lan Antoniorekin; irailean zine aretoetan ikusgai izango den 'Oculto' filmean, hain zuzen.

Hemendik gutxira Donostian grabatuko den film luzean parte hartuko duzu. Zeozer aurreratu ahal diozu Geu-ri?

Egia esan, nahiko gutxi. Koldo Serra izango da zuzendaria eta mementoz, prestaketa lanetan gaude, Gipuzkoako baserri zein basoetan lokalizazioen bila, batik bat. Pelikula 1978. urteko nekazal gunean girotzen da eta filmazioari abuztua eta iraila bitartean ekingo diogu.

Lana falta ez zaizula nabaria da, baina etorkizunari begira, zeintzuk dira zure proiektuak?

'Sin fin' filmaren postprodukzioa amaitu dut oraintxe bertan eta 'Torrente 3' pelikularekin nago buru-belarri egunotan. Ondoren, Koldo Serraren lana egin eta ostean, ez dakit... oporrak akaso!!

zinea

Yossi & Jagger

Israel

Iraupena: 67 min.

urtea: 2002

Estreinatzeke eguna 2005/07/08

Zuzendaria: EYTAN FOX

Pelikula honek benetako istorioa kontatzen digu, Yossi eta Jaggerren arteko amodiozko istorioa alegia.

Biak Israelgo ejerzitoaren ofizialak dira eta Israel eta Libano herrien arteko mugan dagoen base batera bidali dituzte.

Biak komandanteak dira, maiteminduta daude, eta ejerzitoak duen sistema gogorrean beraien leku propioa bilatu behar dute. Hori gutxi balitz, beren herriaren hegoaldean daude sinesten ez duten gerra batean parte hartzen.

Gaur egungo Israelgo gazteen argazkia.



cd-a

zura taldea ilargi handi, zauri zarae

metak- 2005



Dut taldeko Xabi Strubell bere bakarkako egitasmo honekin azaltzen zaigu. Garcia Lorca, Lauaxeta eta Bitoriana Gandiaga lotzen dituen disko-liburu dotorea da. Poemen moldaketa Xabi Strubell eta Martxel Mariskalek egin dute. Kantu iradokitzailez osatu cd-a, Xabik idatzitako kantuak eta koadro desberdinen garapena uztartzen dituen dvd-a, eta poemak eta idatziak biltzen dituen liburua dira bilduma erakargarri honen edukiak. Diskoa 2004ko maiatzetik 2005eko martxora hiru aldi ezberdinetan Irungo Irudiots estudioan grabatu, nahastu eta masterizatua.

Zura-ren estiloak musika akustikoaren arlo esperimentalerantz jotzen duela esan daiteke, soinu akustiko gordina bilatuaz. Izan ere, bi gitarra klasikoarekin eta batera eskubilekin jotzeak izaera berezia ematen dio taldearen soinuari.

Edukia:

I. Ilargi handi: Ehiztari / Kordoba / Agurra

II. Zauri zarae: Langile eraildu bati / Artzain baten heriotzean

Otsoa (I)

[txabi arnal gil]

Otso gizajoa! Gaizkilea, gaiztoa, zitala, maltzurra... Inork ez al dizu sekula hitz gozoren bat eskainiko? Beldurgarrietasun beldurgarriena zara. Ezagutzen ez bazaitugu ere ikaragarri izutzen gaituzu. Hau bai xelebrekeria! Betidanik propagandarik txarrean egokitu ohi zaizu. Hori zama! "Kontuz ibili amonaren etxerako bidean. Otsoa inguru hartatik dabilela aditu dut eta". "Ez izeaiozue inori atea zabaldu, otsoa izan bailiteke". "Badator, badator otsoa! Gorde zaitetze!". Eta gainera, hori gutxi balitz, ipuin amaieretan leloenaren eta jipoituaren eginkizuna bete behar izaten duzu beti. Tripa zabaldu eta harriz betetzeaz gain, ibaian ito egiten zara batzuetan. Ehiztari batek akabatzen zaitu beste batzuetan. Ipurdia erreta alde egin behar duzu ongi ezagutzen duzun horretan. Inor ez da inoiz zutaz errukitzen. Beti galtzaile. Umeek, goizago ala beranduago, munstrorik zein herensugeri ez dagoela ikasiko dute. Baina zeu bai, otso gaixoa, zeu bai zara. Zu benetako izakia zaitugu. Haurren eta umeen beldur guztien isla izendatua izan zara, otso zorigaiztokoa! Gizakion etsaia, eta baita etxabereena ere. Aspaldiko nekazal giroan, batek daki noiz, jaio zen zure legenda. Ulargarria da garai hartako artzainak eta baserritarrek zutaz ez fidatzea. Baina, Bob Dylanek esan bezala, garaiak eta gizarteak aldatzeko joera dute, eta lehen mundu honetako nekazal gizartea ia erabat desagertu zaigu dagoeneko. Osterantzean non dago bada? Beraz, gauzak horrela, zergatik jarraitzen duzu ipuinetako gaizkileen Top One-a betetzen?•



liburua

KE

PA

ipuin bilduma

non nago? zertan ari naiz? zer naiz?

ibaizabal-2005

18 hilabetetik gorako haurrentzako liburu entretenigarriak. Txikitxoei galderak egingo zaizkie, eta erantzunak orriak zabalduz aurkituko dituzte. Egilea: Liesbet Slegers. Itzultzailea: Nekane Umerez. Orrialdeak: 24. www.ibaizabal.biz

[erredakzioa]

■ gasteizko udalak euskara planari buruzko iragarkiak berria-tik kendu ditu

gasteizko euskara planari buruzko publizitatea berria egunkariatik kentzeko agindua eman zuen pp-k ekainaren erdialdean, hasiera batean baimendu ondoren. udalak iragarkiak ipini behar zituen sei egunetan azaleko orrian euskaldunak euskaraz mintzatzea animatzeko. baina, asmoa bertan behera utzi zuten ekainean, azalpenik eman gabe. gara egunkaria ere kanpainatik at utzi zuen. alfredo iturritxa zinegotzi popularrak ukatu egin zuen iragarkiak berria-tik kentzeko agindua eman zuenik, eta kanpaina zabalkunde gehien duten egunkarietan egitea erabaki zutela esan zuen. oposizioak gaia euskara kontseiluan eztabaidatzeko eskatu dio pp-ri.

■ frida aldizkariaren aurkezpena

ekainaren amaieran aurkeztu zuten bilbon ekoizten den argitalpen hau, era honetan definituz: "publizitate produktu soil baten antzera aurkeztzen gaituzten argitalpenez inguraturik, gure aldizkariak foro dialektiko alternatibo bat zabaldu nahi du". bertan emakumeak bere balioa azaldu ahal izango du, emakumeen itxaropenak eta emakume izatearen poztasunak islatuko ditu. helburua, emakumea, kulturara, trebakuntzara eta hezkuntzara hurbiltzea da, betiere emakumeen alde estetikoa edo osasuntsua ahaztu gabe; "emakumeok gure azala eta gorputza zaintzea maite dugulako eta gure izatearen poztasuna adierazi nahi duguiako".



■ gasteizko auditorioaren egitasmoa, geldituta, alderdien ezadostasunak direla medio

gasteizen auditorioa eraikitzeko proiektua blokeatuta dago egun. alderdien arteko ezadostasunak tarteko geldituta dago une honetan juan navarro baldeweg-en egitasmoa. musika eta arte eszenikoen jauregi proiektua ez aurrera ez atzera dabil azken urte eta erdian. udal gobernua ez baitu babes nahikorik bere asmoa gauzatzeko. oposizioko taldeek proiektuaren ezaugarriak, toki eta finantzaketa jarri dituzte zalantzan, batez ere. oposizioko taldeen arabera, beharrezkoa da egun principal antzokiak dituen mugak eta gabeziak gaindituko dituen azpiegitura bat eraikitzea, eta alkateari egotzi diote adostasunak lortzeko "gaitasun falta" duela.



■ nestor basterretxeari saria

nestor basterretxeak eusko ikaskuntza-euskadiko kutxaren humanitate, kultura, arteak eta gizarte zientzia saria 2005 jaso zuen ekainean. diziplina anitzeko artista da; arte plastikoak, eskultura, ilustrazioa, diseinua, arkitektura, argazkilaritza, zinea, arte eszenikoak, poesia eta publizitatea landu ditu. bere eskultura lanak euskal herri osoko zein amerikako parke eta plazetan banatuta daude. horrez gain, zenbait filma ere egin zituen, horien artean 'ama lur' (1968), euskal zine garaikidea sortu zuen lana. mundu guztian barrena egindako ehun erakusketa pertsonal eta kolektibo inguruan parte hartu du.

■ emakumearen kontrako indarkeriarako epaitegia zabaldu dute gasteizen

gasteizen emakumearen kontrako indarkeria kasuak epaitzeko epaitegia zabaldu zuten ekainaren 29an. sexu indarkeria kasuak baino ez ditu aztertuko epaitegi horrek. gisa horretako epaitegiak dituzten hiriak gutxi dira oraindik espainiako estatuan: une honetan 17 hirik dute sexu indarkeria kasuak soilik epaitzeko salak. genero indarkeriaren aurkako legeak zehazten du halako epaitegiak ireki behar direla. maria boado fiskala arituko da gasteizko epaitegian akusazio publikoaren lanak egiten. epaitegiaren ordutegia goizeko 9etatik arratsaldeko 15:00ak bitartekoa da.

■ www.goxoki.com

goxoki sexualitate eta kontrazepzio arloei buruzko informazioa jorratzen duen web orrialde gazte eta dinamikoa da. egitasmo honen xedea gaztediaren arazo, jokabide, nahi eta jakintzetara hurbiltzea eta arlo desberdinetan (sexualitatea, sentimenduak, komunikazioa, nerabeen haurdunaldiak, sexu bidezko gaixotasunen transmisioa, hies-a...) informazio egoki eta baikorra aurkeztea da. gaian adituek kudeatutako ataria da.

■ unai romanoren tortura salaketa artxibatu du madrilgo auzitegiak



unai romano gazte gasteiztarrak torturengatik jarritako salaketa artxibatzeko agindu zuen epaileak ekainaren 7an. guardia zibilaren bertsioa hobetsiz epaia kaleratu zuen madrilgo lurralde auzitegiko valentin sanz altozano epaileak. gazteak bere burua lesionatu zueneko hipotesia hobetsi zuen epaileak. frogak faltsutzearen delitua leporatzeko ikerketa abiatzeko aukera ere aipatu zuen epaileak.

erabakiaren aurrean 2001ean eginiko testigantza oso-osorik berretsi zuen gazteak ostean, eta akusazioak helegitea jarriko duela iragarri zuen. epailearen inpartzialtasuna zalantzan jarri zuen, bestalde, torturaren aurkako taldeak, eta inkomunikazioa amaitzea gizarte osoaren ardura dela azpimarratu zuen.

unai romanok aurpegia ubelduta eta burua hazita zituen espetxeratu zutenean. handik hainbat egunetara, nekrosia -hildako zelula multzoa- eta 9x7 zentimetroko burusoiltzea agertu zitzaizkion buruaren atzeko eta goiko aldean. epaileak "buruaren atzeko eta azpiko aldeko zauriaz" dihardu etengabe, eta ez atzeko eta goiko aldeaz. gainera, epailearen iritziz, urriaren 2a arte ez zenez zauririk agertu, espetxeratu osteko izan behar da lesioa. alegia, lesioak ez duela inkomunikazio gaiarekin loturarik iritzi dio. guardia zibilaren adituek eta auzi mediku gehienek ere tesi horri eutsi zioten.

akusazioak, ordea, espetxean gazteari ateratako argazkiek eta, batez ere, ospitaleratu zutenean egin zioten TAC delako probak edema orokorra eta odolbilduak zituela frogatzen dutela uste du. romanoren abokatuen ustez, harrigarria da epaileak auto osoan TAC proba behin ere ez aipatzea, akusazioaren ustez dagoen frogatik objektiboa denean.



igor garcia, eskolako kirol koordinatzailea

• **Gasteiz Cup Emakume Futbol Eskola Arabako eskola bakarra da, adin guztietako taldeak jolasteko aukera eskaintzen duena.**

• **Kadete taldea Gipuzkoako ligan 3. postuan geratu da.**

• **Aurten 3 jokalaririk izan dira hautatuak Euskadiko Infantil selekzioan jokatzeke.**

Gasteiz Cup Emakume Futbol Eskolak Araban adin guztietako emakumeak futbol hastapenetan aritzeko aukera eskaintzen du. Futbol hastapenetan eta eskola arteko txapelketetan emakumeen eskaera eta beharraren ondorioz orain dela 3 urte lanean hasi zen, egun Araban mota honetako eskola bakarra izanik.



[maite lekue]

Gasteiz Cup Emakume Futbol Eskolak adin guztietako 84 neskek bere 5 talde desberdinetan jolastu ahal izatea ahalbidetu du denbora gutxian. Araba herrialdean futbolekin aritzen diren 5 emakume talde badi-ra ere, gaur egun Araba mailan emakumeen futbol li-garik ez da existitzen. Liga hau sortzea epe motzeko helburua du eskolak, nahiz eta Arabako Futbol Fede-rakundearekin lehenago ere asmo bereko saialdiak izan eta arlo honetan nahirik agertu ez, kirol honen susta-pena eta emakumeen partehartzea galaraziz. Araba-ko emakumezkoen lehenengo futbol liga honen so-rterra bultzatzeko futbolaren hastapenak antolatzen eta oinarrien finkatze jardueran dabilta, Igor Garcia kirol koordinatzailearen laguntzaz.

ESKOLAREN EGUNEROKOA

Eskolako dinamika lanetan entrenamenduak egiten dituzte talde guztiekin astean bizpahiru aldiz, taldea-ren mailaren arabera, Sansomendiko zelaietan. Entre-namenduetan jasotzen dena ikuskatzeko saioen kon-trolak egin ohi dituzte entrenatzaile eta koordinatzailearen artean jokalarien garapena landu, edukinak jo-r-ratu eta taldearen garapena lortzera bidean. Meto-dologia globala deritzona erabiltzen dute, jokoaren

bidez futbola garatzea delarik benjamin, alebin eta in-fantilekin lortu nahi duten helburua. Futbol zortzian eta hamaikakoan, aldiz, metodologia berezituagoa era-biltzen dute.

GASTEIZ CUP, EKIMEN DESBERDINEN ESKOLA

Gasteiz Cup Emakume Futbol Eskolak egiten duen urte osoko lana ez da futbol denboraldiarekin ama-i-tzen, udaran Gasteiz futbol jokalaririk internazional-iz jantzen duen ekimenean ezinbesteko partehartzea baitu, Gasteiz Cup torneoan hain zuzen. Horretaz gain, San Prudentzioko jaien egitarau barnean, Lehenengo Emakumezkoen Futbol jardunaldiak ospatu zituzten arrakasta handiz Langraizen, bertan, orain arte Araban emakumeek izan duten futbolerako lehenengo espa-rrua sortu baitzuten. Historiko bezala definitzen dute antolatzaileek topagunea, bertara emakumezkoen 24 futbol talde (10-15 urteko neskek) hurbildu baitziren 2 egunetan.

EMAKUME FUTBOL HARROBIA SORTZEN

Klasifikapenetan lortutako emaitzetatik at aurrera-pena eta ikaskuntza prozesua oso baikorra izan dela dioSKU Igorrek. Eskolak, etorkizun baterako, garatuta-

Gasteiz Cup



emakume futbol eskola



[argazkiak: edorta sanz]

ko harrobiaz baliaturik, Senior taldea Nazional Ligara igotzea du helburu, eta egun gizonen futbolak duen egoerarekin alderatuta, aldaketa eta garapena bilatzen dute arlo honetan. Gasteizko Emakume Futbol Eskolak Udalaren laguntza ekonomikorik ez du jasotzen eta Foru Aldundiaren partetik aldiz, apurra. Horrexegatik Gipuzkoara (Kadete eta Senior taldeekin) partiduetara egiten diren bidaiak finantzatzeko babesle baten beharra beharrezkotzat jo zuten, eta baita lortu ere, Euskadiko Kutxaren ekimenez.

Datorren ikasturteari begira Gasteiz Cup Futbol Eskolak zabal-zabalik agertzen ditu bere atak futboleko aritu eta gustuko duen emakume ororentzat.

Nahi izatekotan hemen doakizue kontaktua: Igor 656704816) - Iñaki (656704819). Entrenamenduak Sansomendiko zelaietan astelehen, asteazken eta ostiraletan, 18:00etatik aurrera•

Mailak

✓ **Benjaminak:** 8-10 urtetako neskek osatzen dute futbol bosteko talde hau. Astean bi entrenamendu saio egiten dituzte eta hilabetean bitan mutilen kontrako partidukoak jolasten dituzte Olaranben. Baina ez dira futboleko soilik aritzen, kirol anitzeko ekintzetan ere parte hartzen baitute. Nesken garapena zein futboleko jolakari onak izateko bilakaera sustatzen dute eskolan benjaminen maila honetan.

✓ **Alebinak:** 11-12 urtetako neskek aritzen dira maila honetan zazpiko jokoa eta Foru Aldundiko ligan jokatzeko mutilen kontra. Zaramagako eta Aguraingo emakume taldeekin ere lehia ibili dira, baita emaitza onak lortu ere.

✓ **Infantilak:** 13-14 urte bitarteko neskek osatzen dute taldea. Futbol zazpian aritzen dira hauek eta Foru Aldundiko ligan mutilen aurkako partiduetan ere aritu ohi dira. Infantil taldeak pasa den ekainaren 12an Leioan jolastutako finalean Athleticen neskek garaitu zituen, haien urte osoko lanaren sari gisa jaso dutena.

✓ **Kadeteak:** 8 kideko taldean jolasten dute 14 eta 15 urteko neska hauek. Oso ondo aritu dira, Gipuzkoako txapelketan 30 talderen artean hirugarren postua lortzera helduz.

✓ **Seniorrak:** 16 urtetik gorako emakumeek osatzen dute talde hau. Nahiz eta emakume askoz helduagoen kontra jokatu, Gipuzkoako txapelketan igoera fasea lortzeko bidean izan ziren eta Kopan 4. postuan kokatu dira taulan.

Gipuzkoako ligan, Kadete eta Senior txapelketetan talde bat izan duen Arabako Klub bakarra izan da Gasteiz Cup.

Varanasiko istorioak

2.- Markesh



[jon arretxe]

Kalkutan jaio zen Jai Narayan 1751ean, brahmanen kastako familia aberats baten barruan. Umetarik izan zuen lotura hinduen tradizio zaharrenekin, tarte luzeak ematen baitzituen aitaren alboan jesarrita, beronek lagun jakintsu, filosofo eta santuekin izaten zituen elkarrizketei adi. Haien jakituria bereganatu zuen pixkanaka mutikoak, eta estudiante aldi luzea izan zuen.

Ikasketak burutu ondoren, brahman askoren ohiturari jarraituz, karrera militarari ekin zion, kolonialismoaren aroan. Britaniar armadako John Shakespeare ofizialarekin adiskidetu zen, beronek estimu handia hartu zion eta, denboraren poderioz, Jai Narayan ere armadako ofizial izatera heldu zen, bost mila soldadu zeuzkala bere agintepean.

Hain itzal handiko bizimoduarekin jarraituko zuen agian Jai Narayanek urteetan zehar, baina gertakari bat egon zen haren biziaren nondik norakoa erabat aldatuko zuena: hinduen gizartearen erabat sustraiturik zegoen eta dagoen astrologiaren iragarpena.

Izan ere, aitaren lagun zaharretako batek zera iragarri zion familiari, Jai Narayanen horoskopoko suerta daitekeen planeta-konglomerazio ilunena adierazten zuela: Markesh.

Luze barik heriotza ekarriko omen zion patua saihesteko ahaleginetan, astrologo, erlijioso, tantriko eta santu ugarirengana jo zuen aholku bila, eta denei entzun ondoren,

armada utzi eta bizimodu berri bati ekin zion.

Varanasira joan zen, hinduen sineskeren arabera hiri santuan hiltzeak birsortze-prozesua eten eta Moksha eskuratzeko aukera emango ziolakoan. Dena den, heriotzaren etorrera ahalik eta gehien atzeratzeko lanari ekin zion berehala. Lehenengoz etxetxoa erosi zuen Mani Karnikan, hinduek gorpuak erretzen dituzten gheatan, Ganges ibaiaren bazterrean, eta aurrerantzean ongia egiteaz baino ez zen arduratu.

Etxe berrian ume txiroei eskolak ematen hasi zen. Gero, espazio barik geratuta, hiri erdian lursaila erosi eta eskola handiagoa eraiki zuen.

Horrez gain, Varanasiko kanpoaldean pobreentzako ospitalea eraiki zuen eta, bere obra biribiltzeko, Guru Dham izeneko tenplua eraikitzeari ekin zion.

Hausnarketan dagoen yogiaren itxura irudikatuz eratu zuen eraikin ugariko tenplua, zori ona ekar zezaketen ezaugarri guztiak kontuan hartuz, eta haren harresien baitan bilatu zuen Markeshetik babesa.

Ekintza onei esker, Jai Narayan planeten eragin hilgarria baretzeko gauza izan zen, luzaro bizi izan zen, eta hiriari orain arte iraun duten hiru opari utzi zizkion: ospitalea, eskola eta bertan barruratzen diren guztiei babesa eta laguntza eskaintzen dizkien tenplu zabala.



Budin diplomatikoa

[diocesan-mendizorrotzako ostalaritza eskola]

Osagaiak (6 edo 7 lagunentzat)

- > Litro bat esne
- > 350 g arrautza (7)
- > 175 g azukre
- > Bizkotxoa (nahi adina)
- > Fruta melatua (nahi adina)
- > Korintoko mahaspasak (50 g)



Prestakuntza


Fruta melatuak (zati txikietan zatikatuta) eta Korintoko mahaspasak kirsch-etan edo gure gustuko beste likore batean utziko dira beretzen. Budinaren moldea karameluz igurtzi dezakegu, edo ez, nahi duguna; karamelurik gabe egiten badugu, hondoan koipeztatutako gainazalaren gainean paper bat ezarriko dugu, eta azukrez hautseztatuko dugu, gero moldetik errazago ateratzeko.

Moldean txandaka bizkotxo geruzak eta fruten geruzak ezarriko dira, ondo xukatuta; pixkana, budinaren krema isuriko zaio, bizkotxoa bustitzen joan dadin. Budinaren krema egiteko, lehenengo, egosi esnea, eta egosten denean kendu sutatik; ondoren, azukrearekin eta arrautzekin egindako nahasketa isuri. Moldea ertzeraino beteta, ur-bainuan egin, budina egin ohi den bezala, baina denbora pixka bat gehiago utziz (ordubete, gutxi gorabehera).

Orratz batekin begiratu eginda dagoen. Hozen denean, atera moldetik eta saltsaren batekin aurkeztu, fruta saltsarekin edo salta ingelesarekin, adibidez, eta fruta naturalekin apaindu. 7 egunez gorde daiteke hozkailuan, eta ezin da izoztu.

[aurreko alean 'habiak' hitza agertu beharrean 'abiak' agertu zen]

[alfredo ibarra]



Aurrekoan aipatu zenuen Zaldiaran eta Zoraida, musulmanak Araban... Arabiar erasoak eta, bai, entzuna nuen, hegoaldeetik, Pankorbo, Ebrotik, baina musulmanik Araban, edota arabar batzuk musulman bihurtu ote ziren? Nola da hori?

Nerea Lpz de Heredia Gauna. Gasteiz

Zaldiarango zoraidaz

[erlantz urtasun]



Ba, bai, egia da. Aurreko zutabea aipatu genuen bezainbatean, topiko anitz dugu gure historian, mugak, zer erranik ez aspaldiko garai ilunetan murgilduz gero. Orduan, Nerea, zinez, akabo! Garrantzitsuena: euskal historiaren milurteko ildoan arabarrak jentil, judu, kristau izan dira. Eta musulmanak ere bai. Bertzerik gabe.

Baina Zaldiaran eta Zoraidarenari ekin diezaiegun, bertzenaz zutaberik gabe geraturen baikara. Antza denez, Zaldiaranen badira defentsa, dorre, gaztelu edo baten hondakinak. Eta, duela ehun bat urte, Barandiaran, Azkue, Donostia, Guridi eta horrelakoen garaian, bertakoek ikerlari aditu hauei kondatu zieten harri puxkatuen artean, oi Gebara, batzuetan andere bat ikusten zutela, seme tipia giblean eta alaba umea altzoan zuela. Landak marrazki ezin politagoak egin ditu horrezaz. Toti idazleari galde egin, bertzenaz.

Alta, gatazka bat eman zen duela mila urte baino gehiago Zaldiaran inguruan. Bertako arabar musulmanek iparraldeko kristauei, hots, Gorbeia peko arabarrei garaitu eta guda zelaiaz nagusitu ziren. Euskaldunen arteko liskarra, bistan da, kanpotar interesek eragina. Zoraida musulman buruzagiaren alaba omen zen, eta txikizioaren ikusterat jaitsi zelarik zeraz ohartu zen, kristau zaldun bat bizirik zela oraindik. Aitari salbatzeko eskatu zion. Eta, aitak, baietz.

Ettxeratu, zaindu, sendatu, sendotu, goxatu, maitemindu eta Zoraida seme-alaba zoragarriez erditu zela idatzi da. Urteak igaro, senarra edo, orduko senarra noski, ezagutzen dugun ezkontza motarik ez baitzen, bon, harirat, senarrak nahikoa goibel zirudien. Zoraidak zergatik, eta bertzeak ihardetsi: "hau ez den toki batean jaio nintzen, eta egun gurasoak zahar-zaharrak dira jada, ziur, hortaz bisitatu nahi nituzke hil aurretik". Antza denez, Zoraida poz-pozik geratu zen, a zer gizon ona, zoaz, zoaz, hemen geraturen naiz zure zain. Tabakoaren bila. Oraino. Eta hura zen, Zoraida, Mariren gisa, duela ehun urte harresi deseginen artean azaltzen zena, seme-alabekin, zorigaiztoko senarraren zain. Posdata: senarrak, kristauen artean lehenagotik ezkondua eta aita, kondatu zuen torturatu egin zutela. Jatorra.

Ondorioa: ikus, Nerea, zer-nolako irudi zintzoa, errugabea zuten gure arbasoek musulmanen gainean, eta zein petrala kristauei buruz. Arrazoinen bat izan behar, jakina. Kristautasun feudal zapaltzaileak gure artean burutu zuen inposaketa bortitzaren hondar albisteak zelatan... Bada, Nafarroa Garaiko Fitero herrian, Tuteratik hegoalderantz, Zazpiak Bateko mugetan, kondaira berbera jaso da, ia hitzez-hitzez. Ene aldetik, zer erran, Zoraida ezagutzeko aukera ez dut, inondik inorat, baztertzen, musulmana ez izan arren•

[?] txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera izango duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es

geu elkarteak

geu elkarteak udazken arte esaten dizue. urritik aurrera berreskuratuko ditu elkarteak bere ohiko ekimen eta ekintzak, besteak beste, 2005-2006 ikasturteari begira. urriko atletik aurrera, beraz, horren berri izango duzue: irakurle kluba, geurekin mendira taldea, geurekin mendira gazte taldea, kultur errota... bien bitartean, ondo igaro udako hile hauek!

geu aldizkariko 150. aleko jaia

hasiera batean espero baino jende gutxiago hurbildu bazen ere, jai eta ikuskizun bereziaz gozatu ahal izan ziren ekainaren 17an azkena aretora bertaratutako guztiak (hemendik gure eskerrak bidaltzen dizkiegu). jende artean oso giro atsegin eta beroa sortu zen, eskaintza paregabeaz lagunduta. jaiaren 1. zatia espektakularra izan zen: hasteko, txalapartaren doinu zirraragari eta biziak, dj-aren platoez, txistuaz, soinuaz, teklatuez, ahotsez, perkusioaz... lagundurik; jarraian, capoeira-ko kalitatezko zortzi dantzariak birimbaaz egindako agurraren ostean, txalaparta eta dj-aren techno-dance musikaren arteko nahasketa dantzarien espektakulu iradokitzailearekin uztartu zen. berotasuna eta izerdia nagusitu ziren aretoan. batera, ibon saez de olazagoitia, isdeo-k prestatu proiektioek (geu aldizkariko 1-150. ale arteko azalak ikusgai, zuzeneko bideo-proiektzioa...) aretoari ukitu eta argiztapen berezia ematen zioten... bigarren zatia, TT.L.Trentzat izan zen; kalitatea, indarra, profesionaltasuna, gogoa..., bere zuzenekoen maila aparta erakutsiz. eta hau guztia geu-k egindako euskal musika dantzagarriaren bildumaz ere jantzirik, jai hasieran, atsedenenaldian eta amaieran... jai atsegin eta berritzailea, benetan!

gara egunkariko gutun sailean argitaratu gutuna. ekaina

Geu aldizkaria, hilaren 15eko elkarriketa Gutuntxo hau idazten dut lehengo egunean Gara-n egin zidaten elkarriketaren harira. Bigarren galderaren erantzunean nik EZ ESANDAKO adierazpen bat agertzen da: "EZ DA ERRAZA EUSKALDUN KOPURUAGATIK ERE". Nik justu kontrakoa esan nuen, hori baita neure ikuspuntua, bai eta GEUrena ere. Niri egindako galderak horrela zioen (argitaratzean bitan zatitu bazuten ere): "Ez da erraza izango euskara hutseko aldizkari bat bizirik mantentzea hainbeste urteetan,... are gehiago Gasteiz bezalako hiri batean (euskaldun kopuruari eta tokiko erakundeen jarrerari begira)...". Beraz, nire erantzuna, batetik, euskaldun kopuruari, eta bestetik, tokiko erakundeen jarrerari so eginez eman nuen, era honetan: "Ez, ez da batere erraza. Are gutxiago Gasteiz bezalako hiri eta Araba bezalako herrialde batean. EZ, EUSKALDUN KOPURUAGATIK EZ. Izan ere, azken datuen arabera, gasteiztarren %40,66 euskaldun eta ia-euskaldunak gara; eta arabarron %40,87...". Nire erantzunaren mezua honakoa zelarik: Ez dela erraza tokiko erakundeen axolagabezia jarreragatik, euren partetik ez baitago gure herrialdean euskararen normalizazioa ahalbidetzen duten egitasmoekiko politika bultzatzailearik, eta GEU aldizkaria, besteak beste, horietako bat da. Alde ona, ordea, Arabako euskaldun kopuruaren urte urteko gorakada zein Araban euskara ikasteko eta berreskuratze dagoen borondatea, sentsibilizazioa eta egiten ari den esfortzua. Zailtasunak, gure kasuan, euskaldun eta euskaltzale horiengana guztiengana iristea, formularik egokiena topatuz, harpidetu daitezten. Oraingoan nire hitzok ulertu direlakoan, besarkada bero bat GEU aldizkariaren izenean arabar euskaldun, euskaltzale eta euskara ikasten ari zareten guztiontzat.

estitxu breñas glz de zarate
GEU aldizkariko zuzendaria

www.geugasteiz.com

aurreko alean iragarri bezala uztailaren lehen erditik aurrera abian izango da jadanik geu elkarteak eta geu aldizkariaren webgunea. creatta enpresako iñigo reciok egina eta diseinatu, eta geuk kudeaduta, 3 atal izango ditu:

-batetik, aldizkariari dagokion atala (laranja). bertan, aldizkariaren aurkezpen orokorra, azken alearen berri, aleen artxiboa, azken orduko berriak (lehentasuna izango dutelarik euskarari dagozkionak) eta aldizkariko harpidetza egiteko aukera ageriko dira, bai eta orriko gainontzeko zonetara era arinean jotzeko aukera ere.

-bestetik, elkarteari dagokiona (berdea). eta bertan: elkartearen aurkezpen orokorra, historia, ekintzak, azken orduko berriak, agendako ekitaldi nabarmenenak 1. planoan, eta aldizkariko sailean bezala, bazkide egiteko aukera eta gainontzeko ataletara erraz jotzeko aukera.

-eta azkenik, 'euskararen unibertsoa' deritzana (urdina), agenda osatu batez (helburua da ahalik eta euskarazko bertako deialdi gehien biltzea, beste talde zein bisitarien partehartzea ahalbidetuz), foro batez (kategorietan antolatua, bakoitza dagozkion gai eta mezuekin), eta euskararen arloko lynk interesgarriez eraturik, besteak beste.

atal guztiak euren artean harremanduta daude eta atal guztietatik besteetara hel zaitezke era erraz eta arinean. gaurkotasunari loturiko atari interaktiboa, dinamikoa eta garbia sortzea izan da xedea. bere baitatik ibiltzeko azkarra, erraza eta zuzena da. euskararen munduko erreferentziatzeko gunea sortu nahi izan dugu eta lortu izana espero dugu.

GEU

www.geugasteiz.com | geu@geugasteiz.com | geugaste@grn.es

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariko taldeak egina, bideratua eta kudeatua | **erredakzioa:** Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | **tfnoa. eta faxa:** 945 22 21 53 | **e-mail:** geugaste@grn.es | **www.geugasteiz.com** | **zuzendaria:** estitxu breñas glz. de zarate | **aldizkariko batzordea:** josune verez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez | **kazetariak:** josune verez de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite lekue | **azaleko argazkia:** argazkiexpress | **argazkiak:** edorta sanz | **bestelako irudiak-bilaketa:** estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | **testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:** estitxu breñas glz. de zarate | **itzulpenak:** edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri | **maketa:** dalvez-komunikazioa / patirke sanz laguardia | **umorea:** iñigo sarasola | **kolaboratzaileak ale honetan:** josune carreño, gorka glz de zarate, kike fdz de pinedo, mikel valverde, rikardo arregi, jon arretxe, txabi arnal, erlantz urtasun, alfredo ibarra eta diocesanas-mendizorrotzako ostalaritza eskola. | **publizitatea eta banaketa:** edurne begiristain | **sustapen-harpidetza saila:** edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate | **inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | **lg:** VI-582/92 | **issn:** 1133-0988 | Frankoe Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Sahara & Euskal Herria.

ELKARTASUN BIDAIA

Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Kirmen Uribe, Rafa Rueda eta Mikel Valverde Saharako askatutako guneetan ibili dira lau egunez

[edurne begiristain]

Euskal Herriko zein Espainiako kazetari, politikari, artista eta Sahararen aldeko elkarreetako kide asko Mendebaldeko Saharan izan ziren maiatzaren 19tik 24ra bitartean, haien lurraldea banatzen duen harresiaren aurkako ('Lotsaren harresia' deitzen diote) nazioarteko manifestazioan parte hartzeko. Bertan izan ziren, besteak beste, Euskal Herrian aski ezagunak diren musikari eta artistak: Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Kirmen Uribe, Rafa Rueda eta Mikel Valverde. Euskal Herriko Saharako lagunek kontzertua eskaintzeko gonbita luzatu zioten Mikel Urdangarini, eta, azkenean, gainontzeko lagunek ere txangoan parte hartu zuten.

Aurreneko gaua Tindufen pasa zuten; handik hurbil, Aljeriako lurretan SEADi utzitako eremuak, saharar zibilak bizi diren errefuxiatuen kanpamenduak. Bertatik abiatuta, Mendebaldeko Saharan barneratu eta askatutako guneetatik ibili ziren hiru egunez. Sekulako astindua hartu zutela aitortzen digu Urdangarinek, ehunka kilometro desertuan egin behar izan baitzuten Toyotetan. Baina merezi izan ziren, gatazkaren blokeo egoeraz nekatuta egon arren, sahararren indarra eta kemena egiaztatzeko balio izan baitziren bidaia.

Aurreneko gaua 'Otsailaren 27' izeneko kanpamenduan pasa zuten, bertako familietan banatu zituzten, biharamun goizean abiatu behar baitziren askatutako lurralderantz, harresiaren aurrean elkarretaratzea egiteko. Seietan altxatu



eta zazpitan abiatu ziren harresi-rantz, Mahbes okupatutik hurbil. Marokoar soldaduak gertu zeuden, martxan zeudenen mugimenduak zelatatzen. Manifestazioan parte hartu zuten emakumeen presentzia bereziki aipagarria izan zela dio Kirmenek, irrintzika agertu baitziren, kontsignak etengabe oihukatuz eta uka-bila astinduz.

Ibilgailuetara bueltatu eta Bir Lehluraino jarraitu zuten, bertan ura eta janaria zain zuten eta. Hortxe, gauez, jaia izan zen, eta Mikel Urdangarinek kontzertua eskaini zuen, mila bat lagunengana. Liluratuta utzi zuen gau hark Zornotzako kantaria: "Harrapatu ninduen basamortuan egoteak, sorginduta nengoen, hango jendearekin sorginduta. Kontzertua oso sinbolikoa izan zen eta eurak oso pozik egon ziren".

Hurrengo egunean handik hurbil ze goen eremu batera joan ziren, militarren erakustaldia ikusi eta Mohamed Abdelaziz presidentearen mintzaldia entzuteratzen. Mezu argia helarazi zuen bertan, Kirmenek gogorazten duenez: "NBERen eskakizun eta baldintza guztiak bete arren kasurik ez zaiela egin, eta atzera borro-



ka armatua hastea baino beste erremediorik ez zaiela geratuko esan zuen argi eta garbi. Ultimatum itxurazko bat izan zen".

Bidaia "opari handia" izan dela irizten diote, bertakoak bakarrik ez daudela sentitu dutelako, eta beraiek mundu berria ezagutu dutelako. Halaber, guztiak bat egiten dute esatean nazioarteko laguntza ezinbestekoa dela haien borroka aurrera egin dezan. "Gu haien lokarria gara eta lokarri txiki horrek asko balio izan die orain arte", dio Urdangarinek. "Egoera beltza dute, baina umorez hartzen dute. Haien dramaren barruan bizizale amorratuak, jende jantzia, kultura handiak dira...", erantsi du. Sahararren borroka esaldi borobil batean laburbildu du Valverdek: "Beti dute beraien herria buuruan, euren herria berreskuratzeko nahia".

Zure denda erotikoa

SEX

PITTILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIA RTZUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, ZIurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

MIKO

Izozkiak

bar • restaurante • albéniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ

Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

IZARRA TABERNA - JATETXEA

BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2

Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

UZTINTZA

KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120

Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

LIZARRALDE SOINYA

TXALAPARTA, S.L.

945 226 977

GASTEIZ

SOINU PROFESIONALA • MEGAFONIA
EREMU HANDIEN SOINUZTAPENA

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2

TFNO. 143883

GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16

Tfnoa.: 945 28 28 39

01002 Gasteiz

eguneko menua

DIBUtec

Paper Bereziak
Arte Ederretarako Materiala
Ink Jet original en birzildutak
Bulego Materiala
Enkauterizazioak
Plastifikazioak
Kopiak
Kamiseten Estampaketak

azkarprint

Impresio / digitalizazio
Edozein ingurumetara

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 • 945 23 30 01 • GASTEIZ • INPRIMATEGIA S

EGUR

Zurezko Teilatuhak
Muntaiak Garabiarekin
eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.
Goian Poligonoa, Legutiano
01171 Araba
Tel.: 627 417 747
Faxa: 945 465 921
montajesegur@euskalnet.net

Xabier taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal

Hegoamerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean) Tfnoa: 945 25 03 52

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 • GASTEIZ

E4

eusko alkartasuna

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea

Euskeraz Araban BAI

GA

Gazte Abertzaleak

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g zaramaga

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tfno: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfno: 26 19 91
01004

sartu

Zure arropa eta oinetakoa!

www.sartudenda.com

Kutxillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

PARRAL TABERNA

Espezializatzen, asteleroz asteko osterakera

JANTOKI BEGETARIANO

SAN FRANTZISKO KAPERKOAKEN KANTOIA, 4
01001 • GASTEIZ
TEL.: 945 27 65 33

TXUKUNA

EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...

Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

HEGOALDE

Euskaltegia

Matrikula zaitez !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

Txapilo de ARKAIA

[kike fdz de pinedo alz de arkaia]

Denok dakigu Arkaiazen azpian termak eta herri erromatar baten aztarnak daudela, antza denez, kronika erromatarren Suessatio hirikoak hain zuzen ere. Erromatarrek etorri baino lehen bertan iada bizi zen jendea, agian Olarizuko Kurutze-mendiko kastrotik behera jaitsitakoak.

Baina oraingoan ez dugu historiaz jardungo. Arkaia inguruko herrietan bezalaxe euskara duela 200 urte inguru desagertu zen, gutxi gorabehara zortzi belaunaldi. Halere gezurra badirudi ere, 1900 urte inguruan jaiotakoek ez zuten bertan euskaraz hitz egin zelako kontzientziarik. Ondo dakit aiton-amonak hangoak nituelako. Are gehiago, amaren osabari euskaraz herrian sekula ez zela hitz egin askotan entzun nion, nahiz eta tarte berak jakin gabe euskal hitzak erabili. Zorionez, ordea, gero eta gehiago aztertzen ari dira euskararen aztarnak. Eta itsua ez denak badaki Arabako iragana euskarari lotua dagoela.

Bide honetan, oraingoan Erdi Aroan ohi-koak zirela euskal goitizenak gure herrietan ikusiko dugu. XV mendearen bukaeran Gasteizko apeoaren agirietan ikus daitekeenez, izen askoren ondoan, abizen edo informazio erantsia moduan goitzen bat agertzen zaigu. Agiriak erdaraz idazten ziren arren, eta batzuetan izenak erdal bertsioan agertzeko joera izaten badute ere, ugariak dira izenaren ondoan agertzen diren euskal goitzenak. Denak ematea oso luzea izango litzatekeenez, Arkaia eta ondoko herriak aukeratu ditugu, inguru honetan nabarmen ugaritzen baitira.


Erdi Aroko Arkaia eta Gasteiz inguruko herrietako goitzenak 5 taldetan banatuko ditugu:

- **Koloreetan** oinarritzen direnak, toponimian zein pertsona izenetan euskararen lau kolore oinarritzkoenak agertzen dutenak: **zuria**, **beltza**, **gorria** eta **urdina**

- ✓ Baltza eta Txurito Arkaian; eta ondoko herrietan **Juan Zuri de Monasteriogure**; Joanne **Gorria** de Castillo edo **Hurdin** de Bolivar.

- Ezaugarri fisiko edo itxuraren arabera-koak:

- ✓ Juan Diaz **Txipi** eta **Txipito**, dudarik gabe Juan hau txiki xamarra izango zen **Maria Txikirra** bezalaxe; eta kontrakoa Juan Fernandez **Luzea**. Arkaia-ateratik gabe hurrengoak ere bai: Juan Lopez de Arkaia, dicho **Okotzo** (okotza-barbilla), **Begieder**; **Sendoa**; eta **Txapilo** (capucha) de Arkaia.



- ✓ Eta ondoko herrietan: Pero **Andia** (Mendiola); Juanche **Artza** (artza-el oso) Gasteizen; Sancho **Ezkia** (tilo, chopo) -gogoratu "el chopo" Iribar Athleticetako atezain famatua- Gamaran; Martin de Arratia **Bizareder** Gasteizen; Juan Diaz **Txapel** (Arkaute) edo Ochoa **Kapel** (Mendiola).

- Izaera edo adinaren arabera-koak:

- ✓ Rodrigo **Gastea** (Otazu) -Gasteiz izenaren oinarrian izen hau omen dago-; Lope **Zarra** eta Ochoa **Barria** (Aberasturi); eta Ulibarri Arrazuan bat ere bekaturik gabekoa, Pero **Santua** dugu; eta ez oso urruti bere antitesia:

Txerran/Txarran de Aretxabaleta ("el diablo" edo agian Herran izena bustidurarekin).

- Lanbidearekin zerikusia dutenak:

- ✓ Mendiolan Pedro **Maestrua**; eta Arkaian Pero **Gatzari** ("el salinero"). Ezaguna denez, Erdi Aroan oso preziatua zen gatza eguneroko bizitzan arrainak gordetzeko, ganaduari emateko, botikak eta xaboiak egiteko... Gatza Añana edo Buradonetik ekarriko ote zuen?

- Euskaraz tradizio handia dutenak:

- ✓ **Gizon** de Arkaia; eta Andollun **Semetxo**. Ohikoak Erdi Aroan. Gaur egun goitzen hauek arraroak diruditen arren, orain dela 2.000 urte inguru Akitanian hainbat hilarritan aurkitutako lehenengo euskal izenen artean **Cison** eta **Sembe** agertzen zaizkigu, bestea beste.

Hauetz gain, gaur egun gertatzen den bezala, hainbat izenetan to, txo, ko, txe... atziki txikigarriak aurki daitezke: **Txipito**, **Juan-txe**, **Matxiko**.

Edo bustidura (-tx) izenak adierazkorragoak egiteko (gaur egun Domingo/Txomin bezala), adibidez: **Txanzar** (Juan Zahar dirudienez), **Txane**, **Matxin**...

Bukatu baino lehen esan dezagun informazio gehiena Juan Vidal-Abarcaren bibliografiatik, eta batez ere, Emiliana Ramosen 'El Apeo de Vitoria (1481-1486) y su jurisdicción a finales del siglo XV' liburu eder bikoitzetik hartua dela; bertan pertsona izenez gain, soro eta lurren izenak ere ezagutzeko parada ederra ematen digu, horrela Arkaian bertan, **Olaran** eta **Sarricuri** herrixkak eta **Mendibea**, **Madura Oquelu**, **Arbina**, **Basochipi** edo **Basoguchi**, **Saldisasi**, **Recaleorra**, **Morinu Oste** edo **Çulavidea** bezalakoak aurki ditzakegu.

Zein hizkuntzatan hitz egingo ote zuten zure arbaso hauek, osaba?•





Berriro 'izarren liga'ra



[arg.: argazki press]

[david alvez]

Bi urte pasa dira eta Alavesek berriro onenen artean jokatu du datorren denboraldian. Aurten goa ez da bide erraza izan; taldea oso irregularra izan baita azken txanpara heldu arte; baina joko-zelaian bainoago kanpoan izan dira zizka-mizkak, hori bai, Dimitry Piterman beti erdian izanik.

lazko uztailen oso baikor agertu zitzaigun Piterman Gasteizen, Gonzalo Antonek bere akzioak saldu ostean; jokari berriak fitxatu, gero proiektu desberdinak buruan (museoa, atletismo taldea, kontzertazioak edonon), geroago espektakulua komunikabideetan ('interbiu' aldizkarian agertutako argazkiak, Antena 3-eko erreportaiak...) eta helburua oso garbi beti: 1. mailara igotzea.

Futbolari dagokionez, 1. partiduan huts, 2 eta 4 galdu Valladoliden aurka; hortik aurrera lasaiago eta denboraldiari erritmoa hartzen..., eta aste batean bai eta hurrengoan ere jokari berriak Ibaian..., ezagunenak Jardel eta Mostovoi.

Urtarrila iritsi zen eta horrekin batera ibilbide benetan beltza, 6 partidu jarraian galdu baitzituen taldeak. Eta berriro Piterman eszenatokira, oraingoan kazetariengan begiak ipiniz eta hortik aurrera 'ixiltasunaren legea' ezarritz. Eta

FITXA 2004-2005

Jokatuak:	42
Irabaziak:	23
Berdinak:	7
Galduak:	12
Puntuak:	76
Postua:	3.a
golegileak:	
Ruben Navarro:	16
Rodolfo Bodipo:	16

ez oso notizia baikorrak hasi ziren agertzen, alde batetik ez ordaintzeak, bestetik, instituzioekiko harreman hotzak... Hala eta guztiz ere, Alaves 1. mailan daukagu. Ez, aspertu ez dira aspertu Alaveszaleak.

Eta hurrengo denboraldian, zer? Ba gutxi gorabehera berbera espero da, joko-zelaian gutxienez mailari eustea eta kanpoan batek daki. Memento, Zorionak Alaves!

FITXA 2004-2005

ACBn Jokatuak:	34
Play Off:	13
Errege Kopa:	2
Euroleague:	24
Lagunartekoak:	2
Superkopa:	2
Orora:	77

Denboraldi bakar batean jokaturiko partida marka

- > Bigarrena Euroligan
- > Bigarrena ACB ligan



Denboraldi ona, amaiera krudela

Amaierako malkoek ez dute okertu behar Tau Baskoniak egin duen denboraldia, bai ACB ligan bai Euroligan; bietan Dusko Ivanovicek zuzendutako taldeak loria ondoan geratu baita lortutako bi postuekin.

Ezinezkoa zaigu oraindik jokatu azken partiduan gertaturikoa, behin bere eskutetan partidua eta txapelketa zeukanean... 2004-05eko denboraldia historiara pasako da, Baskoniak egin

duen jokoagatik eta izen propio batzuegatik, Scola edota Calderon, kasu.

Aldi berean, ez da ahaztuko hau Ivanovicen azken denboraldia izan dela ere. Bost urteren ostean Montenegroko entrenatzaileak Bartzelonara zuzendu du bere bidea. Hala ere, espero dezagun hurrengo urtean atzera Baskonia onenen artean izatea, eta hirian ematen dituen sentsazioez berriro gozatzea. Honetan ere, beraz, Zorionak Baskonia!



[arg.: artxibo]

DEEP PURPLE QUEENS OF THE STONE AGE
SOCIAL DISTORTION WILCO GOV'T MULE
MONSTER MAGNET BEASTS OF BOURBON
BAD RELIGION DRIVE-BY TRUCKERS HASH
ELECTRIC SIX BRANT BJORK & THE BROS
MASTERS OF REALITY JULIETTE & THE LICKS
ROSE HILL DRIVE TOWERS OF LONDON SPLIT 77 ...

*******AURKEZPEN JAIA*******
 2005eko Irailaren 1a Osteguna · 20:00. Mendizabala Barrutia · Vitoria-Gasteiz
(BANDA SORPRESA) THE STEEPWATER BAND THE SOULBREAKER COMPANY ...

www.azkenarockfestival.com




- Koaderno hauek pentsatzen eta hausnartzen laguntzen dute.
- Buruketen soluzioaren logikan sartzen dute ikaslea.
- Arlo honetan zailtasunak izan ohi dituzten ikasleengana zuzendurik daude.

Hamarrendun eragiketak lau eragiketekin

Sekuentziaturik eta eragiketak europar moneta bakarrarekin, euroarekin alegia, burutzeko egokiturik daude.

Argibideak eta eskariak.
Tel./Faxa:

945 25 75 14



BATUKETAK, KENKETAK, BIDERKETAK,
ZATIKETAK, BERREDURAK EDO POTENTZIAK,
ZATIKIAK EDO FRAKZIOAK ETA
EHUNEKOAK EDO PORTZENTAJEAK